



SAIAKERA

ISBN: 978-84-18252-15-0

ORRIALDEAK: 144

FORMATUA: 12 x 19

PREZIOA: 14,00 €

“Filosofo mediatikoenak koronabirusak dakarkigun distopia aztertzen du [...], hala ere, zerumuga itxaropentsu baten alde egiten du”.

El Confidencial

EGILEA TXALAPARTAN

¡Bienvenidos
a tiempos
interesantes!Slavoj
Žižek

txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eusIZURRIA!
COVID-19AK MUNDUA ASTINDU DU

Slavoj Žižek

Hitzostea: Imanol Galfarsoro

Itzulpena: Danele Sarriugarte

Munduan aurrekaririk gabeko pandemia bat zabaltzen delarik, nor aproposagoa Slavoj Žižek esloveniatar filosofo zirika-tzailea baino izurriaren atzeko esanahiak bistartzeko, horren paradoxa xeleeekin lilurazteko eta ondorioen sakontasunari buruz espekulatzeko? Hori guztia, gainera, irakurlea izerdi patsetan eta arnasestuka uzteko moduko idazkera bizian. Gaur egun, maitasun keinurik handiena maitatuarengandik urrun egotea bihurtu zaigu; urtetan zerbitzu publikoak basaki murriztu dituzten gobernuak dirutza konjurtzen hasi dira bat-batean; komuneko paperak harribitxirik preziatuaren pareko salgaia dirudi; egoera horretan, Žižeken aburuz, komunismo molde berri bat izan liteke bide bakarra mundua barbarismoan erortzea saihesteko.

Ohikoa duen kemenaz eta herri-kulturaren analogiak baliatuz (orriotan, Quentin Tarantino eta Kamila Shamsie albez albo ari dira Hegel eta Marxekin), Žižekrek krisiaren argazki kitzi-katzaile eta zorrotza ematen du, bai eta -pesimismoaren birusa zabaltzen ari den honetan- irakurketa itxaropentsu bat ere.



Slavoj Žižek

1949 Liubliana (Eslovenia) Filosofo, soziologo, psikoanalista eta kultur kritikari esloveniatarra. Bere obrak Jacques Lacanen pentsamendua eta materialismo dialektiko marxista biltzen ditu. Žižekek herri kulturako adibideak darabiltza bere azterketa bizietan, esaterako, Alfred Hitchcock eta David Lynch lanak edo Kafka eta Shakespearearen literatura, eta akademiak ahaztuxe dituen autoreekin problematizatzen du —Lenin, Stalin eta Robespierre, kasurako—. Estutasunik gabe landu izan ditu gai arantzatsuak; besteak beste, fundamentalismoa, antikapitalismoa, tolerantzia, subjektibitatea eta politikoki zuzena filosofia posmodernoa. Ez dator bat oro har Europako ezker unibertsalistaren postulatu intelektualekin, ezta, zehazki, Habermasek posnazonaltzat dituen horiekin ere; aitzitik, Europan zabalik diren prozesu subiranisten alde argi eta garbi agertu da Žižek. Teoria psikoanalitikoaren lacandar bertsioa armatzat erabili du nazioarteko politikari buruzko ohiko analisiak egitean, ez soilik liderrak eta haien ustezko arazo psikologikoak aletzeko, baizik eta gizartea osorik aztertzeko. 1990ean Esloveniako Errepublikako presidentetzarako hautagai izan zen, nahiz eta garaile atera ez.

Danele Sarriugarteren itzulpenean, IZURRIA!-rekin lehenengo aldia izanen da Žižeken liburu bat euskaraz irakurtzen ahalko duguna. Argitaratu berria bada ere, hamaika hizkuntzataraz itzuli dute, eta, hala ere, euskarazko edizioak gainerakoek ez duten atal bat izanen du, autoreak hala eskatuta. Gainera, Imanol Galfarsorok jarri dio liburuari epilogoia, *International Journal of Žižek Studies* aldizkariaren editore nagusia eta Liverpooleko unibertsitateko irakaslea bera.



9 788418 252150